

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ERRENERIAKO UDALAREN 2017-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Erreneriako Udalaren, erakunde autonomoen (Jesusen Bihotzaren Egoitza Udal Patronatua eta Erreneria Musikal Udal Patronatua) eta sozietate publikoaren (Erreneria Garatuz SA) 2017ko ekitaldiko ekonomia eta finantza kudeaketaren fiskalizazio txostena onartu zuen.

2017ko Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia plazaratu du**, nahiz ezin ondoriorik eskuratu izan dugun Udalaren Balantzeko Ibilgetu, Lurraren udal ondare eta finantza inbertsioen saldoen eta erakunde autonomoen ibilgetuko saldoen gainean.

HKEEk fiskalizazio-gai izan den Kontu Orokorrak erakutsi duen finantza egoera aztertu du eta ondorioztatu du aztergai izan den aldian sarrera arrunten hobekuntzak funtzionamendu-gastuen igoerari aurre egitea bideratu duela, sortutako aurrezki maila gehitxo eragin gabe. 2017ko abenduaren 31ko geldikinak gainditu egin du hirurtekoko kapitaleko eragiketen emaitza. Zorpetzea, berriz, sarrera arrunten % 28,4 da.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2017an aurrekontuaren egonkortasuna bete dela. Gastuaren arauari dagokionez, % 2,8 igo da, 2017ko ekainean onetsi zen 2017-2020 Ekonomia eta Finantza Planak aurreikusitako mugen barruan.

Epaitegi honen iritzira, Erreneriako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakunde guztiek zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.